

Bilbon, 1999ko urriaren 29an

H. Knörr, euskaltzainburordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi
eta A. Urrutia euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea,
Mikel Gorrotxategi, Onomastika
batzordeko idazkaria eta
Patxi Salaberri, Onomastika
batzordekidea (1.2.1. gaian).
P. Pujana, euskaltzain ohorezkoa,
Patxi Uribarren, euskaltzain urgazlea
eta Iñaki Nafarrate, Aramaioko
alkatea (bilkuraren etenaldian)

1999ko urriaren 29an, Bilbon, Plaza Bar-
riko egoitzan, bildu da Euskaltzaindia
bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko
hamarrak eta erdietan hasi da bilera. Ba-
tzarrean parte hartu dutenen izenak ezke-
rreko zutabeen jasotzen dira. Ezin etorria
adierazi dute J. Haritschelharrek eta Tx.
Peillenek.

● *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Onartutzat eman dira iraileko batzar-agi-
riak inolako oharrik gabe.

● *Batzarburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak etortzerik izan ez due-
nez, H. Knörr buruordeari dagokio ba-
tzarra gidatzea. Eta lehenbizi Euskal He-
rriko Unibertsitateak Martin Ugalde
idazlea eta euskaltzain ohorezkoa *Hono-
ris Causa* doktore izendatzea erabaki
duela aipatu du. Zorionak ematea eraba-
ki da.

● *Hizkuntza arauak.*

Aurreko zerrendetan zintzilik utzitako zenbait hitz.

Sekzio hitzari buruzko erabakia.

Txostena eskatu zen. Honen arabera, OEH-k behin omen dakar *seksione* (=par-
te). Mende honetan ugari erabili da. Agerraldi asko administrazioari dagozkionak dira.
Hala ere, bere garaian *atal* hitza bultzatu zen eta hala dabil gaur administrazioan. Bai-
na badira beste erabilera batzuk matematikan, arkitekturaren eta horrelako gaietan. Hor-
taz, batzordearen proposamena honako hau izan da: **seksio-1**. Zientzia eta teknika alo-
rean. Sekzio-2* e. **atal**.

Charritton jaunak, dena dela, *pikalotsa* hitza erabiltzen dela dio. Badirudi, hala ere, hitz hori ez dagoela inon jaso. Beraz, ez da kontuan hartu iradokizuna.

Sor-suspertzaile zerrenda amaitzea.

Sorgin hitzaren azpisarrerak hobeki begiratzeko erabakia hartu zen aurreko batzarrean. Batzordearen arabera, gehien dokumentatuak honako hauek dira: *sorgin-dantz*a, *sorgin-afari*, *sorgin-haize* eta *sorgin-ehiza*. Hauexek sartzea proposatzen da, lehengoez gain. Horrela onartu da.

Sorgin(-)orraz/sorgin(-)orrazi auziaz, dirudienez, ez dago datu argiegirik. Hala ere, joera nagusia bereizketa egitekoa litzateke. Hala onartu da. Bestalde, *carduus* ala *cardus* den ere zalantzan jarri da. Badirudi *cardus* dela. Nolanahi ere, begiratuko da.

Sostor/zoztor aukeraren aurrean, Bizkaian *s*-rekin bada ere, Nafarroan *z*-rekin dela esan da. Eztabaida luzea izan da, ez bakarrik ortografiari dagokionez, baita hitz horren adieraz eta kategoriaz ere. Azkenean, *zoztor* forma onartu da, *mutil zoztorra* adibidea gehituz. Eta beste sarrera hau ere onartu da, jakina: *sostor*, e. **zoztor**.

Sotil hitzaren kasuan ez omen dago aterabiderik, datuen arabera. Bi adibide erantsiko dira: *haren arrazoibide sotilak*; *haren gorputz sotila*.

Sozietate hitza sartzea interesgarri ikusten du Urrutiak, inongo adierarik eman gabe. E. Larrek ere hitz hori Iparraldean aspalditik sartua dela esan du. Azkenean honela utzi da: *sozietate*-1* e. **gizarte**; 2, elkarte mota, *sozietateen alorreko legeria*.

Su-ren azpisarrerak direla eta *suan/sutan/surtan* auzia atera du Sarasolak argitu beharrekotzat. Datuak hobeki aztertu behar dira eta hurrengoan erabakiko da. Bestalde, *su(-)argi* eta horiek hurrengorako uztea erabaki da.

Subirano/soberano hautua ere geroko utzi zen. Bozkatu da eta hamabi euskaltzain agertu dira *subirano* eta *subirannotasun* formen alde. Beraz, forma horiek onartu dira.

Suposatu-ri buruzko datuak ere argitzeko eskatu zitzaion batzordeari. Aditz hau oso erabilia da bi adieratan. *Egunkariaren Estilo liburuak* ahal dela aditz honetatik ihes egitea gomendatzen du. Beraz, badirudi badela adostasuna. Euskaltzain batzuek hitza gaitzestea eskatzen dute. Beste batzuek aipatu gabe uztea nahiago dute. B. Oihartzabalaren proposamena da, hitz hau tradiziozkoa ez denez, oraingoz ez sartzea baina kondenuatu ere ez oraingoz, behar bada hitz horren adiera guztietarako ordain jatorri ez baita izango. Bozkatu da eta hamasei botoz, zerrendatik kanpo uztea erabaki da, besterik gabe.

● Onomastika: *San, santu, done* eta ingurukoei buruzko gomendio-erabakia.

Patxi Salaberriri eman zaio hitza lehenbizi. Hark dioenez, Onomastika batzordeko eta Hiztegi Batuko batzorde ordezkarien arteko bilkuran ez zen adostasunik lortu. Gainera, M. Azkaratek bidali zuen agiriak ez ditu han esanak ongi biltzen. Azkarate andreak gehitu du nahiago lukeela bilkura hartakoez Haritschelhar jauna –bileran izan baitzen- aurrean dela eztabaidatzea. Ez daki non dagoen desadostasuna.

Ondoren, Salaberri jaunak bi batzordeen arteko bilkurari buruzko txostena irakurri du, desadostasuna non datzan azaltzeko asmoz. M. Azkaratek dio euskaltzainei bil-

kura hartako agiri gisa banatu zaien izkribua ez dela bilkuraren agiria, bere izkribua baizik, hots: berak bilera hartatik ateratako ondorioa.

B. Oihartzabalek galde egin du ea jendea horrelako bilkuretara doanean, zertara doan. Ea gero berriro alderdi bakoitzak bere batzordera itzuli behar duen.

M. Azkaratek garbi utzi nahi izan du bere asmoa ez zela bilera hartakoak gaur eztabaidatzea. Beste zenbait euskaltzainek ere parte hartu dute eztabaidan (Satrustegik, Goenagak, San Martinek, Iñigok, ...) eta azkenik ontzat eman da hurrengo bilkurarako dokumentu bakar bat, adostasuna zertan dagoen eta adostasunik zertan ez dagoen argi erakutsiko duena, ekartzeko bilkurara, hemen puntu guztiak eztabaidatu eta bozkatze-ko. Dokumentu hori bilkura eginez edo posta elektronikoz mamituko da.

● *Tobera triskantza* zerrendaren aurkezpena.

Tobera-triskantza hiztegi zerrenda banatu zaie euskaltzainei. Eskuratutako zerrendari zenbait kenketa egin zaizkio batzordetik bertatik: *tokitxo, tokolo, toleatu, tolesge, topaketa, torna, torroil, toton, tototu, toxikatu, trabesa** eta *trailatu*.

● *Zenbatzailedun sintagmak nola erabili iraupena eta maiztasuna adierazteko* txostenaren aurkezpena.

Gramatika batzordeak landutako araugai honen aurkezpenak eztabaida luze xamarra ere ekarri du berekin. Nolanahi ere, euskaltzainek hilaren hogeia arte dute ohar-erak egiteko epea, beti bezala.

● *Tabako-to* zerrendaren eztabaida.

Lehendabizi, X. Kintanaren ohar-erak hartu dira eztabaidagai.

Tanto/tantu auziaz Kintanak galde egiten du ea *tanto*-ren aldeko lekukotasun gehiago ote dagoen *tantu*-ren alde baino. Baietz dirudi. Euskara Batuko batzordearen gehiengoak ere *tanto* formaren aldeko jarrera erakusten du. Hala ematea onartu da.

Tatuaje hitza zerrendatik oraingoz kentzea onartu da.

Zerrendan *taxista* forma gaitzestea, *taxi(-)gidari*-ren alde, gehiegizkoa iruditzen zaio ohargileari. Batzordeak *taxista* hitza espainolarena dela irizten dio eta bereari eusten. Dena dela, beste ordain batzuk ere aipatu dira. Azkenean, *taxilari* eta *taxi(-)gidari*-ren arteko aukera zerbait argitzeko eskatu zaio batzordeari.

Telefonatu aditzaren erregimena argitzeko eskaria egiten du Kintanak. Iparraldeko hitza denez, Iparraldeko euskaltzainei galde egin zaie. Adibide bat ezartzea onartu da: *bihar telefonatuko dizut*.

Hari berari tiraka, *telefonoa jo* azpisarreraz eztabaida sortu da. Batzuek bitxi irizten diote. Eztabaida luzea izan da hemen ere. Azkenean, botoetara jo da: bederatzia euskaltzain agertu dira azpisarrera hori kentzearen alde. Lau, uztearen alde. Beraz, *telefonoz deitu* azpisarrera bakarrik utziko da zerrrendan. *Telefonoa jo* bigarren itzulirako geratuko litzateke.

Termino hitzari 'teknika hitza' azalpena eranstea ez zaio ohargileari aski iruditzen. Etsenpluren bat gehitzea eskatzen du. Honako hau erantsiko zaio: *Hizkuntzalari-tzako terminoa*.

Testu hitzari dagozkion bi esangurak gehitzea nahi luke ohargileak. Dagoen bezala uztea erabaki da. Hamar euskaltzainen botoak hala erabaki du.

Tinbre hitzari *Akust.* oharra erantsiko zaio.

Tintatu eta *tindatu* bi hitz desberdin gisa ematea nahi luke ohargileak. Ez da onartu oharra. Horrenbestez, puntu honetan ez zaio aldaketarik ezarriko zerrendari.

Tisis eta *tisiko* hitzak ez dira, Kintanaren aburuz, zerrendan lekua izateko modukoak. Hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Titiko hitzaren kategoria eta esangura argitzeko eskatzen du Kintanak. Onartu da oharra: izena dela esango da eta 'titia hartzen duen haurra' ezarriko da esangura argitzeko. Adibidea ere emango da: *Haurren eta titikoen ahotik*.

Ordu bata eta erdietan batzarra eten egin da Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoari Aramaioko udalaren domina emateko. Pujana jaunak ez zuen izan bere garaian Aramaiora joateko modurik eta gaur hartu du Euskaltzaindiaren egoitzan, euskaltzainez eta senitartekoz inguratuik, herriko alkate den Nafarrate jaunaren eskutik, Aramaioko domina. Hitz labur batzuk eskaini dituzte bai H. Knörr jaunak, bai alkateak. Pujana jaunak ere esker hitzak izan ditu, horretarako Patxi Uribarrenek bere ahotsa utzi diolarik.

● *XV. Biltzarraren batzorde akademikoa eta antolakizunekoa osatzea.*

Duela zenbait hilabete onartutako batzordeak osatzeko proposamena ekarri du Zuzendaritzak, berehala lancan has dadin. Proposamena honako hau da:

Batzorde akademikoa: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, batzordeburu; P. Goenaga, idazkaria, batzorde idazkari; eta kide gisa, B. Oihartzabal (Iker sailburua eta Dialektologia batzordeburua), Patxi Altuna (Gramatika batzordeburua), G. Rebuschi (euskaltzain urgazlea eta hizkuntzalaria) eta J. Gorrotxategi (hizkuntzalaria).

Antolakizun batzordea: J. A. Arana (diruzaina), batzordeburu; J. L. Lizundia (idazkariorde-kudeatzailea), batzorde idazkari; eta kide gisa, J. J. Zearreta (ekonomia eragilea), Pello Telleria (eragile teknikaria), J. A. Aduriz (Hiztegi Batuko batzorde idazkaria) eta J. M. Makazaga (Gramatika batzorde idazkaria).

A. Urrutiak batzorde akademikoaren osaera apur bat motz ikusten du. Soziolinguistikaren aldetik beste norbait ere gehitu beharko litzatekeela uste du. *Ad cautelam* onartu da proposamena, baina, gaien arabera, gehitze hori komeni den ala ez hurrengoan aztertuko da.

J. A. Aranak ere zenbait proposamen ekarri ditu: batetik, beste batzordeño bat osatzea bi buruekin eta bi idazkariekin. Batzordeño honen eginbeharra bi batzordeen lana koordinatzea izango litzateke. Bestalde, antolakizun batzordean zerrenda zabalik uztea proposatzen du, premien arabera. Proposamen hauek ere onartu dira.

Eskuarteakoak.

J. L. Lizundiak Errose Bustintza “Mañariko”-ren mendeurreneko ospakizunen berri eman du.

Bestalde, Euskaltzaindiko literatura sarietarako epaimahaikideen proposamena egin da eta onartu:

Txomin Agirre eleberri sarirako: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Alzaga antzerki sarirako: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia olerki sarirako: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona.

Mikel Zarate saio sarirako: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Andolin Eguzkitza.

Zuberoako herri eta herritarren izendegiarekin egin den liburuxka ere banatu zaie euskaltzainei.

Azken ordukoak.

Satrustegi jaunak Euskaltzaindiko Zuzendaritzari egindako gutuna irakurri du euskaltzainen aurrean. Irailaren 29an euskaltzainei zuzendutako gutun bat idatzi zuen EHU-k kaleratu berri duen *Euskaltzaindiaren araugintza berria* izeneko liburua argitaratzea salatuz. Gutun honi Zuzendaritzak erantzun zion urriaren 22an. Oraingoa Zuzendaritzaren gutunari erantzutera dator. Satrustegiren lehenbiziko idazki hartan ez omen zen pertonekin sartu, ekintza bat salatu besterik ez omen zen egiten. Gertatua larritzat dauka Euskaltzaindiaren burujabegoa eta nortasuna baitaude zalantzan. Kakoa honako hau omen da: noiz eman duen Euskaltzaindiak arauen liburua berak argitaratu aurretik beste norbaitek plazaratzeko baimena. Bestalde, zalantzan jartzen du Zuzendaritzaren ustezko eskubidea Euskaltzaindiaren Arauak inori emateko nahiz ukatzeko.

Ondoren, Andres Urrutiak hartu du hitza. Borondate txarrik ez dela izan argi dauka, baina nahi luke ziurtatzea Euskaltzaindiak izango duela beti lehentasuna bere lanak, eta bereziki *Arauak*, argitaratzerakoan. Garbi izan beharko litzateke zein den jabea, nahiz eta horrek ez duen kentzen jabe denak beste batzuei erreproduktzio eskubideak uztea, beti ere baldintza batzuen barruan.

Kintana jaunak ere hitz egin du, argitalpenaren helburua zein izan den azalduz, zenbat ale kaleratu diren eta abar. San Martin jaunak ere Zuzendaritzaren eskubideak noraino iristen diren argitzea nahi luke eta Euskaltzaindiak bere jabegoa behar bezala zaintzea. Alde honetatik B. Oihartzabalen ustez, Euskaltzaindiak ongi zaindu behar litzuke bere-bereak diren argitalpenak. Besteren eskua sarturik dutenak, berriz, libre utzi behar litzuke. Nolanahi ere, *Arauak* bezalako argitalpenei zabalkunde ahalik eta handiena ematen saiatu behar luke Euskaltzaindiak.

P. Goenagak hartu du hitza ondoren: J. M. Satrustegiren gutunari Zuzendaritzak egoki iritzi zion erantzuna eman ziola eta denek ezagutzen dutela. Urrutia jaunak eskatzen duen bezala, ziurtatua dagoela, inolako zalantzarik gabe, Euskaltzaindiak izan

behar duela eta izango duela lehentasuna horrelako argitalpenak egiteko orduan. Are gehiago: istilua sortu duen argitalpenean bertan ez dela biltzen arau bat ere Euskaltzaindiak argitaratu gabekorik. Eta norbait *Hiztegi Batuaren* azken argitalpen osoaz ari bada pentsatzen, argi dagoela lan hori, osorik eta bere arau-balio guztiarekin, Euskaltzaindiak argitaratuko duela bere garaian. Eta gertatuaren ondoren bi lezio behintzat atera dituela: bata, batzordeetan erabakitzen diren kontuen jarraipen xehea ziurtatu beharra, gerta ez dadin batzorde batetik beste batera bidaltzea arazoren baten konponbidea eta gero konponbide hori bidean galtzea. Eta, bestetik, axola duten gauzetan, eta bereziki hirugarren pertsonekin zerikusia dutenetan, txosten juridikorik izan gabe ez jotzea.

Eta arratsaldeko seiak eta erdietan amaitutzat eman da batzarra.

Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar

Idazkariak

Patxi Goenaga

* * *